

## **IKAS KOMUNITATEAK PROIEKTUA: EZAUGARRIAK ETA OINARRIAK**

Ikas-komunitateak ikaskuntza dialogikoan oinarritutako proiektua da. Ikasle guztiek eskola-arrakasta lortzea eta ikasle guztien bizikidetzaren hobetzea ditu helburu. Haur guztiek hezkuntzarik hoberena jasotzeko eskubide izatea da proiektuaren abiapuntua, eta haien gaitasunak eta trebetasunak garatzearen alde egiten du; helburu horiek lortzeko, hezkuntza-komunitate osoaren babesa du.

Honako hauek dira proiektu horren oinarriak:

### **Helburu partekatuak**

Beharrezko da helburu eta xede partekatuak komunitateko eragile guztien artean definitzea, eta, hala, esfortzu guztiak norabide berean elkartu ditzakegu. Ikaskuntza ikas-komunitate osoa biltzen duen elkarrizketatik abiatuta planifikatzen da, eta, hor, familiak, boluntarioak, langileak, ikasleak eta irakasleak sartu behar ditugu.

### **Komunitatearen eragile guztien parte-hartze kritikoa, berdintasunezkoa eta aktiboa**

Eragile guztien parte-hartzeak ikastetxeko arlo guztiak har ditzake (kudeaketa, dinamizazioa, gelak...), eta prozesuaren une guztietan: plangintza, prestakuntza, gauzatzea eta ebaluazioa. Parte-hartze hori eztabaida berdintasunezko, kritikoa eta erreflexibotik abiatuta egiten da. Ardurak partekatu egiten dira, baina ez dira besteen esku uzten. Horrek dena berregituratzea dakar: gela, ikastetxearen egitura, horrek komunitatearekin, auzoarekin edo herriarekin duen harremana..., eta, hala, kolaborazioa hainbat eremutan gertatuko da: ikastetxean, gelan, etxean, kultura-etxean, udalean...

Kudeaketa modu demokratikoan egiten da, batzorde mistoak erabilita; horietan, ikastetxean landu beharreko oinarrizko alderdiak lantzen dira eta eragile talde guztietako ordezkariak egoten dira, baita ikasleak ere.

### **Desberdintasuna onartzen duen kulturartekotasuna**

Hainbat kulturatatik datozen lagunen parte-hartzea sustatzen da, baita haien erakunde eta elkarteak ere, ikastetxeko gune eta jardueran guztietan; hala, kulturak erantzen dira komunitate beretako kideen ahotsen bidez.

Ikasleen arteko interakzioetan, kolaborazioan eta elkarrizketan oinarritutako metodologiak erabiltzen dira geletan, eta, hala, mota askotako boluntarioen laguntzari esker ikasten da ahalik eta gehien. Hala, aniztasun kulturalarekiko edo sozialarekiko arreta gelaren barruan lantzen da, berdintasun-egoeran eta elkartasun-giroan.

### **Hezkuntza-inklusioa**

Gela arruntean, ikasle guztien parte-hartzea eta ikaskuntza bultzatzen dira; horretan ere sartzen dira beren gaitasunengatik edo ezintasunengatik zailtasunik handiak dituztenak eta, horregatik,

eskolan eta komunitatean muga handiak dituztenak. Horretarako, ikaskuntza errazteko prozesu guztiak egituratzen dira, eta gelen eta ikastetxearen dinamika orokorrerako beharrezkoak diren jarduera espezializatuak integratzen dira, eskola-ordutegian zein eskolaz kanpokoan.

### **Itxaropen handiak.**

Ikasle guztientzat, maximoen curriculum batetik abiatzen gara, eta pertsonen ikaste-gaitasunetan konfiantza izanda eta horiek garatzeko baliabideak jarri behar direla jakinda eraikitzen da hori. Halaber, honako ideia hauetatik ere abiatzen gara: familia guztiek hoberena nahi dute beren seme-alabentzat; irakasle guztiek beren ikasleek ikastea nahi dute eta gizarte-eragile guztiek beren ingurua eraldatu eta hobetu nahi dute.

### **Ikaskuntza gunea izango da**

Ikas-komunitateak antolatzeke, kontuan hartu beharko da lagun guztiek posible izan behar dutela ahalik hezkuntza-aukera gehienetara iristea. Horretarako, ikasteko denbora berrantolatu eta luzatzen da, eskola barruan zein eskolatik kanpo, eta, eremu horietan guztietan, eduki akademikoekin zerikusia duten ahalik eta interakzio gehien sustatzen dira parte-hartzeko eta elkartasunezko giro batean.

Proiektu hori gauzatzeko, hainbat hezkuntza-praktika eta -estrategia jarri behar dira martxan. Gaur egun, gai horri buruzko zenbait teoria arrakasta izaten ari dira mundu osoan zehar eta nazioarteko komunitate zientifikoak ontzat jotzen ditu; aurretik aipatutako praktika horiek teoria horien ikerketaren eta analisiaren emaitza dira. Ikas-komunitateen eta INCLUD-ED proiektu integratuaren arteko lotura estua oso garrantzitsua da horretarako. INCLUD-ED Ikerketarako IV. Esparru Europarraren Programaren nahitaezko fasearen inbertsio nagusia da hezkuntza-ikerketaren arloan. Beren emaitzetan eta beste ikerketakoetan oinarrituta, estrategiaren batek funtzionatzen ez badu, analizatu eta aldatu edo baztertu egiten dute. Ikas-komunitate bihurtzeko asmoa duten ikastetxeei honako estrategia hauek gauzatzeko proposatzen zaie:

- **Denen ametsa**

Amets bat lortzeko, komunitateko lagun guztiek sartu behar dute proiektu berean; horixe izango da lehenengo pausoa. Langile eta hezkuntza-eragile gisa amets bat partekatzea da abiapuntua: "gure seme-alabentzako nahi dugun ikaskuntza haur guztien esku egon dadila".

Ametsaren bidez helburu komunak bilatuta, denok har dezakegu parte, horretarako ez baita hizkuntza teknikorik behar, elkarrekin lor dezakegunarekiko itxaropenak handitzen baitira eta gizarte-, kultura- eta balio-egoera desberdina duten lagunen elkarrizketa eta bizikidetzaren errazten baitira.

- **Batzorde mistoak**

Denon ametsetik abiatuta, eragile guztien artean erabakitzen da zein gai diren lehentasunezkoak. Lehentasun bakoitzerako, batzorde misto bat sortzen da, honako hauek osatuta: irakasleek, familietako kideek, boluntarioek, langileek, ikasleek eta bestelako eragileek. Batzorde bakoitzean, dagokion lehentasuna gauzatzeko beharrezkoak diren ekintzak planifikatzen dira, eta, halaber, denen artean erabakitzen dute lanak nola banatu.

- **Familietako kideei prestakuntza ematea**

Ikasleekin interakzioa duten eragile guztien prestakuntza irakasleena bezain garrantzitsua da edo are garrantzitsuagoa. Horregatik, eskariak eta interesak aintzat hartuta, ikas-komunitate bakoitzean, hainbat prestakuntza mota ematen dira: eragile guztientzako prestakuntzak, edo kolektibo edo talde bakoitzerako espezifikoak, baina, beti, eragile guztientzat irekita egongo dira.

Eragile guztiek prestakuntza elkarrekin jasotzen badute, ikaskuntza eta bizikidetzak bultzatzen dira, baita eskola denona izatearen sentimendua ere. Familiek beste modu batean ikusten dute eskolarekiko duten hezkuntza-eginkizuna, eta irakasleen lana ezagutu eta balioesten dute; horrek, aldi berean, eragina du etxean bultzatzen diren jarreretan. Hala, familiei prestakuntza emateak inguruaren eraldaketan eta ikasleen ikaskuntzetan eragiten du.

- **Ikaskuntzarako toki eta denbora gehiago**

Komunitatearen baliabide guztiak optimizatu eta errentagarri bihurtu behar dira, ikaskuntza-denbora gehiago eman ahal izateko; horretarako, ordutegia luzatu eta ikaskuntza hobetu dezaketen eragile guztiak geletan egon ahal izango dira.

Ikastetxean, tutoreen ardurapeko liburutegiak eta gela digitalak antolatzen dira, eta, horietan, boluntarioek, udaleko laguntza-taldeek eta bestelako eragileek laguntzen dute, liburutegi hori denbora luzeagoan irekita egon dadin; aisialdiko jardueretan, adostutako zenbait balio eta ikaskuntza indartuko dira; informatika-gela denbora gehiagoz irekitzen da, bai ikasleek baita familiek eta beste eragileek ere erabil dezaten; udal zerbitzuetako kideek ere parte hartzen dute batzorde mistoetan edo batzorde horietako ordezkariekin biltzen dira aldian behin, eta hori lagungarri zaie auzoko edo udaleko jarduerak planifikatzeko eta hezkuntzagune gehiago emateko.

- **Solasaldi dialogikoak**

Literatura-solasaldi dialogikoak antolatzen dira irakasleen, ikasleen, familien zein beste eragileen prestakuntzarako; batzuetan, denontzat izaten dira eta, gehienetan, taldeka egiten dira, baina, betiere, irekiak izaten dira. Aurretik adostutako literatura-testu batetik abiatuta eta testuko paragrafoei behin eta berriz erreferentzia eginez, parte-hartzaileek eztabaidatu egiten dute, beren interpretazioak, hausnarketak, argudioak eta esperientziak emanez. Pertsona guztiek egin ditzakete beren ekarpenak irakurri dutenetik abiatuta; horri

esker, gehiago irakurtzen dute. Horretaz gain, ikuspuntuak trukutzen direnez, gehiago ikasten da.

Testuak hautatzeko, klasiko unibertsaltzat jotzea izango da oinarrizko irizpidea, horiek ikaskuntzarako lagungarriagoak direlako eta balioak lantzea eta gatazkei buruz hausnartzea errazten dutelako. Solasaldi batean hainbat eragilek parte hartzen dutenean, balioei modu bateratuan ekiten zaie eta ikastetxeko zein inguruko arazoei buruz eztabaidatzea errazago suertatzen da.

- **Talde interaktiboak**

Gela-metodologia hori interakzioetan eta talde-lanean oinarritzen da. Gela talde heterogeneotan antolatzen da. Talde adina jarduera antolatzen dira eta taldeak, jardueretan zehar, txandaka ibiltzen dira saioan zehar. Jarduera bakoitzak pertsona heldu bat du arduradun gisa. Haren eginkizuna ez da jarduera irakastea, ikasle guztiek jarduera gauzatzeko irtenbideak bilatzen lagun dezaten dinamizatzea baizik. Irakasleak jarduerak diseinatu eta saioa nolakoa izango den kudeatzen du.

Gelan mota askotako helduak egotea aberasgarriagoa da, ikasleen aniztasunetik hurbilago dauden hainbat estilo ekarri, askotariko estrategiak eman eta itxaropen handiak sustatzen dituztelako. Hala, ikaskuntza hobetzeaz gain, honako hauek sustatzen dituzte: ikasle guztien parte-hartze aktiboa, zentzua sortzea eta elkartasuna.

Gizarte-hezitzaileek denbora jakin batez esku har dezakete gela baten barruan, beren laguntza behar duen ikaslerik badago, eta, gero, espazio informaletan jarraitu lanean. Familiako hainbat kidek laguntza eman diezaiekete irakasleei, hainbat ezagutza ekarrita, hala nola hizkuntzak edo ikastetxean presente dauden kulturei buruzko ezagutza espezifikoak.

- **Arauk eta gatazken prebentzioa lantzea**

Gatazken prebentziorako eta konponketarako eredu komunitarioak proposatzen du arauak eragile guztien artean adostea; hala, komunitate osoak horiek betetzera lotuko da. Oso garrantzitsua da gutxieneko arau batzuk partekatzea, ikastetxe barruan zein kanpoan aplikatzeko, baina, horretarako, beharrezkoa da familiekin akordio bat lortzea, eskolak inposatzen duen kontutzat har ez dezaten. Kultura eta gizarte guztietako pertsonok parteka ditzakegun hastapen oinarrizkoetan funtsatuta egon behar dute adostu beharreko arauak, eta, hala, bereizten gaituzten kontuetan oinarritu beharrean, elkartzen gaituen horretan funtsatuko dira: haurren eta gazteen bizitzarako, oso garrantzitsuak izan behar dute; gizartearen gehiengoak horien alde egon behar du, baina behin eta berriz hausten diren horietakoak izango dira, eta, arau horiei dagokien egoera aldatzea posibletzat jo behar da. Lan horretan, prozesua garrantzitsua da, hainbat elkarrizketa-foro sortzen baitira; horietan, gatazkei heltzen zaie eta, hori esker, eraldaketak gertatzen dira. Adostutako arauak autoritatea berreskuratzen laguntzen dute, eta

zenbat eta eragile mota gehiagok parte hartu (ikasleak barne) orduan eta gehiago.

- **Eraldaketa-prozesua**

Ikastetxea ez da egun batetik bestera eraldatzen, eta, horretako, testuinguruan kokatu, eztabaidatu eta adostu beharreko fase hauek dituen prozesu bat behar da:

**Sentiberatze-fasea**

Fase horretan, Ikas-komunitateen proiektuaren berri ematen zaie familiei, irakasleei, ikasleei, boluntarioei eta gizarte-eragileei. Hainbat lan-saio egiten dira, eta, funtsean, honako gai hauek lantzen dira horietan: Informazio-gizarteari eta horrek dakartzan hezkuntza-beharrei buruzko hausnarketa; arrakasta duten hezkuntza-ereduak aztertzea; hezkuntza-desberdintasunak aztertzea; ikastetxeak Ikas-komunitate bihurtzeko prozesua eta komunitatea prozesu horretan nola inplikatzeko den analizatzea; ikastetxearen egoerari buruzko hausnarketa.

**Erabakiak hartzea**

Fase horretan, ikastetxeak eraldaketari ekiteko konpromisoa hartzen du. Horretarako, klaustroaren, OOGren (Ordezkaritza Organo Gorena) eta Gurasoen Elkarteak antolatutako biltzarraren gehiengoak ados egon behar du.

**Ametsaren fasea**

Une horretan hasten da eraldaketa-prozesua egiatan. Fase horretan, gizarte-eragile guztien artean pentsatu eta adostu behar da nolako eskola nahi luketen, ikasteko, lan egiteko, seme-alabak eramateko... Irakasleei eta beste langileei galdetzen zaie ia nolako eskola nahi luketen beren seme-alabentzat. Amets gisa planteatzen da, denek parte har dezaten errazteko; izan ere, horrela hizkuntza teknikit alde egiten da eta egungo egoerarekin lotutako itxaropen eskasak gainditu egiten dira.

Ametsa, utopia gisa, motor garrantzitsua da, bai eztabaidarako baita ekintzarako ere.

**Lehentasunak hautatzea**

Testuinguruaren analisi bat egiten da eta lortu nahi den ametsaren eta egoera errealaren arteko aldea kontuan hartuta hautatzen dira lehentasunak. Egin beharreko aldaketak identifikatu eta aldaketa horiek lortzeko landu beharreko jarduerari ematen zaie lehentasuna.

**Plangintza**

Lan-batzordeak sortzen dira lehentasun horietako bakoitza lantzeko, eta, horietan, honako hauek hartzen dute parte: irakasleak, familiak, ikasleak, langileak, toki-elkarteetako kideak, aholkulariak... Aldaketarako irtenbideak eta ekimenak

egitea eta proposatzea izango dira lan-batzorde horien funtzioa, baina klaustroak, OOGek eta Gurasoen Elkarteak hartuko dituzte erabakiak. Lan-batzorde bakoitzak prestakuntza handiagoa eska dezake gai jakin baterako.

### **Martxan jartzea**

Fase horretan, lehentasun bakoitzerako planifikatutako ekintzak martxan jartzen hasiko dira. Prozesu horrekin batera, martxan jar daitezke proiektuaren neurri bereizgarrietako batzuk, hala nola talde interaktiboak, berriketaldiak, familien prestakuntza (hori ere batzorderen bateko helburua izan daiteke). Hala, berrikuntza-hausnarketa prozesu bat hasten da, eta, horri esker, aldaketak aplikatzen dira eta aldatu eta hobetzen dira, egindako praktiken eta hausnarketen analisitik abiatuta.